

EAE-KO JAIORRIEN SORTZETIKO GAIOTASUNEN BAHEKETA-PROGRAMA

2018KO MEMORIA

JAIOPERRIEN SORTZETIKO GAIXOTASUNEN BAHEKETARAKO AHOLKU BATZORDEA

Lehendakaria: Alberto López Legorburu jauna

Idazkaria: Leire Gil Majuelo andrea

Batzordekideak:

Jaioberrien Baheketa eta Hipoakusia Programaren koordinatzaileak:

Aitziber Perez andrea

Miguel Angel Cortajarena jauna

Ana Aguirre andrea

Idoya Martinez andrea

Jose Antonio Municio jauna

Euskal Herriko Pediatria Elkartearen ordezkariak:

Ignacio Díez López jauna

Ginekologia eta Obstetriziarako Euskal Erakundearen ordezkariak:

Mercedes Fraca Padilla andrea

Osakidetzaren Osasun Laguntzarako Zuzendaritzaren ordezkariak:

Enrique Peiro Callizo jauna

Adelina Perez Alonso andrea

Osasun Sailaren ordezkariak:

Mercedes Espada Sáez Torre andrea

Txema Arteagoitia jauna

EAE-KO AMAETXE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ZERRENDA

Ospitale publikoak: Txagorritxu, Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Debagoiena, Zumarraga, Mendaro.

Ospitale pribatuak: Quirón, Pilareko Ama Birjina Osasun Zentroa, Poliklinika Gipuzkoa, IMQ Zorrotzaurre eta San José klinika.

HITZAURREA

Txosten honetan laburbiltzen dira 2018an EAEko Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programaren esparruan –alegia, Metabolopatia eta Hipoakuasia Programa– gauzatutako jarduerak.

Halaber, datu soziosanitario interesgarriak ematen dira gure autonomia-erkidegoko ama-umeen egoera orokorraren ikuspegia zein den jakiteko. Informazio hori guztia programaren bidez kudeatzen den Jaioberrien Erregistro Ofizialetik eskuratu da.

Amaitzeko, Programaren berezko kalitate-adierazleen berri ere ematen da, eraginkorra izan den balioesteko.

EAE n jaiotako haurtxoen ia % 100 daudela Programan sartuta kalkulatzen da.

Emaitza biokimikoak azkar lortu behar direla aintzat hartuta –behar izanez gero tratamenduari hasiera emateko–, lortutako erantzun-denborek adierazten dute era honetako programetan normalean izaten dena baino askoz ere arinago lortu direla emaitzak, eta, horrenbestez, antolaketa-diseinua baliozkoa dela erakusten digu.

Gaur egun, jaioberrietan 11 gaixotasunen behaketa egiten da: «Sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia (MCADD), fibrosi kistikoa, zelula faltziformeen anemia, I. motako azidemia glutarikoa, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, astigar-xarabearen usaina duen gernu-gaixotasuna, azidemia isobalerikoa, homozistinuria eta hipoakusia».

2016an, Nafarroan eta Kantabrian jaiotako haurrak sartu genituen Jaioberrien Baheketa Programan; hortaz, Osasun Sistema Nazionalaren oinarritzko zerbitzu-eskaintzaren zazpi gaixotasunen baheketa egin zen (aurrerago adierazten dira).

2017an, entzumen-galera sartu zen Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programan, eta jaioberrien datuak jaso ziren Osasun Sailaren Erregistroan.

2014ko martxoaren 20an, Osasun Sistema Nazionaleko Jaioberrien Baheketa Programaren Informazio Sistema osatzen duten oinarritzko gutxieneko datuak adostu ziren, Osasun Publikoaren Batzordeak Osasun Sistema Nazionaleko Jaioberrien Baheketa Programaren Informazio Sistema garatzeko sortutako lantaldeak proposatuta. Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatutako lantalde hori autonomia erkidegoetako ordezkariak osatzen dute.

2014ko azaroaren 6an, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Agindua argitaratu zen BOEn, zeinaren bidez aldatzen diren Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu-

eskaintza komuna eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak.

Jaioberrien baheketaren kasuan, bereziki nabarmentzen da garrantzitsua dela, alde batetik, informazio-sistema bat izatea, autonomietan eta Estatuan populazio-programa horiei behar bezalako jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, eta, bestetik, baita kalitatea kudeatzeko sistema bat ere, autonomia erkidego guztietan baheketa-prozesuak modu homogeneoan egiteko.

3.3.1. apartatuan jaso dira zer gaixotasun dauden sartuta Osasun Sistema Nazionalaren oinarritzko zerbitzu-eskaintzaren barruko Jaioberrien Baheketa Programan: sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, fibrosi kistikoa, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, azidemia glutarikoa eta igitai-formako zelulen anemia.

2015eko otsailean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak Jaioberrien Baheketa Programaren Informazio Sistema jarri zuen abian (SICN).

2017ko azaroan, Osasun Publikoaren Batzordearen barruan populazioaren baheketa buruzko batzorde txostengilea eratu zen, eta SICNren lantaldea horren barruan txertatu zen.


Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioak koordinatzen duen Gaixotasun Arraroen Estrategiaren Batzorde Instituzionalak EAEko Jaioberrien Baheketa Programa hautatu zuen 2013ko deialdian gaixotasun arraroen jardunbide egokiak identifikatzeko, banatzeko eta hedatzeko gainerako autonomia erkidegoek jarraitu beharreko eredu izateko.

2018an, Kimika Klinikoko Unitateak UNE-EN ISO 15189 araua (Laborategi Klinikokoak: kalitateari eta konpetentziari buruzko berariazko betekizunak) betetzeagatik jasotako egiaztagiria berrestea lortu du Jaioberrien Baheketa Programan sartutako hamar gaixotasunetan inplikaturako markatzaile guztientzat.

Jarduera eta lorpen horiek guztiak EAEko Jaioberrien Baheketa Programan diharduten oinarritzko eremuetako eta Osasun Publikoko Zuzendaritzako profesional guztien ahaleginaren emaitza dira.

Horrez gain, Osasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako teknikarien laguntza izan dugu arazo informatikoak konpontzeko, eta, nola ez, baita autonomia erkidego honetan haurrak jaiotzen diren zentro pribatu guztien elkarlana ere. Balio beza honek horiei guztiei eskerrak emateko.

PROGRAMAREN EGITURA




JAIOPERRIEN SORTZETIKO GAIXOTASUNEN BAHEKETA PROGRAMA (metabolopatiak)

JAIOTZAK

2018an 16.417 haur jaiio ziren EAEn. 1. irudian ikus daitekeen bezala, Bizkaian 8.148 haur jaiio zen (% 49,63), Gipuzkoan 5.844 (% 35,60) eta Araban 2.425 (% 14,77).

1. irudia. EAEn jaiotako haurrak, lurralde historikoaren arabera.



2017an baino 1.024 haur gutxiago jaiio dira.

1. taula. EAEn jaiotako haurren kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera. 2016, 2017 eta 2018

LURRALDE HISTORIKOAK	2016	2017	2018
Araba	2.761	2.589	2.425
Bizkaia	9.451	8.884	8.148
Gipuzkoa	6.420	5.968	5.844
EAE	18.632	17441	16.417

JAIOTZA-ZENTROAK

EAEn jaiotako haurren banaketa, amaetxearen arabera:

ZENTROA		Jaiotza kopurua	%
Ospitale publikoak	Txagorritxu	2.417	% 14,71
	Basurtu	2.288	% 13,93
	Gurutzeta	4.387	% 26,71
	Donostia	3.496	% 21,28
	Debagoiena	472	% 2,87
	Zumarraga	697	% 4,24
	Mendaro	605	% 3,68
	Guztira	14.362	% 87,43
Klinika pribatuak		1.994	% 12,14
Etxean		61	% 0,37
Beste erkidego batean		6	0,04%
Atzerrian		4	% 0,02
Guztira		16.427	

Aurreko urteetako emaitzekin alderatuta, zentro publiko eta pribatuen ehunekoak ez dira aldatu.

2018KO JAIOPERRIAK, BAHEKETA EGINDA DUTENAK

2018an jaiotako 16.427 haurretatik 16.333ri egin zitzaion baheketa. Gainerako 94 haurretatik, 85 hilik jaio ziren eta 9 bizirik. Horietako sei Donostia Ospitalean jaio ziren, eta bosten gurasoek, behar zen informazio guztia jaso ostean, baheketa ez egitea erabaki zuten eta euren erabakiaren berri ematen duen agiria sinatu zuten. Beste umeak alta goiztiarra jaso zuen. Beste bi kasu Gurutzetako ospitalean eman ziren; horietako batean, gurasoek baheketa ez egitearen erabakiaren berri ematen duen agiria sinatu zuten, eta, beste kasuan, lagina ez zen baliagarria izan eta jaioberria ez zen ospitalera itzuli proba berriz egiteko. Azken kasua, berriz, Basurtun jazo zen, eta haurdunaldi subrogatu bat izan zen.

ELIKADURA

2. taulan adierazi da 2018an jaiotako hurrek jasotako elikadura mota.

2. taula. Elikadura motaren bilakaera egonaldian zehar. 2016., 2017. eta 2018. urteak.

Elikadura	2016	2017	2018
Naturala (amagandiko edoskitzea soilik)	% 72	% 72	% 72
Artifiziala	% 11	% 10	% 10
Biak (amagandiko edoskitze mistoa)	% 16	% 16	% 17
Beste batzuk / Ez da jaso	% 1	% 1	% 1

Aurreko urteko ehuneko bera mantentzen du edoskitze naturalak, oraindik ere elikadura mota ohikoena delarik.

PISUA

3. taula. Haurtxoen ehunekoak jaiotzean zuten pisuaren arabera, jaioberri guztiak kontuan hartuta.

Pisua	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
< 1.500 g	23	% 0,95	77	% 0,94	49	% 0,84	149	% 0,91
1.500-2.500 g	160	% 6,60	499	% 6,11	319	% 5,46	978	% 5,95
< 2.500 g guztira	183	% 7,55	577	% 7,07	371	% 6,35	1.131	% 6,89
≥ 2.500 g	2.240	% 92,45	7.581	% 92,93	5.475	% 93,65	15.296	% 93,11
Jaioberriak guztira	2.423		8.158		5.846		16.427	

HAURDUNALDI-ASTEAK

Erditzeen % 93,60 haurdunaldiko 37-42. asteetan izaten dira (4. taula).

Prematuritate indizea (AE < 37 aste) pixka bat gutxitu da aurreko urtekoaren aldean.

4. taula. Jaiotzen ehunekoa testatutako jaioberriekiko, haurdunaldi-asteen arabera.

Asteak	Jaiotza kopurua	%
< 28	58	% 0,35
28 - 32	135	% 0,82
33 - 36	851	% 5,18
< 37 guztira	1.044	% 6,36
37 - 42	15.375	% 93,60
> 42	1	% 0,01
Ez da jaso	7	% 0,04
Guztira:	16.427	% 100,00

ERDITZE MOTA

5. taula. Jaioberrien ehunekoa, jaioberria nola zetorren kontuan hartuta eta erditze motaren arabera.

Aurkezpen mota	Kopurua	%	Sektore publikoa		Sektore pribatua	
			Kopurua	%	Kopurua	%
Zefalikoa	15.671	% 95,40	12.334	85,88	1.472	73,82
Podalikoa	582	% 3,54	2.027	14,11	491	24,62
Zeharka	59	% 0,36	1	0,01	31	1,55
Beste batzuk	81	% 0,49				
Ez da jaso	34	% 0,21				
Guztira	16.427		14.362		1.994	

Sektore pribatuan sabel-bideko erditze gehiago izaten dira sektore publikoan baino (% 24,62 eta % 14,11 hurrenez hurren).


AMAREN ADINA

Ume gehienak 30-34 urteko amek erditzen dituzte (5.718 jaiotza, % 34,81); eta, ondoren, 35-39 urteko amak daude (5.609 jaiotza, % 34,15). 20 urtetik beherako amen kopuruak behera egin du zertxobait aurreko urtekoaren aldean (6. taula).

6. taula. EAEn jaiotako haurren proportzioa, amaren adinaren arabera.

Adina	Guztira	%
<=14	3	0,02
15	4	0,02
16	11	0,07
17	36	0,22
18	43	0,26
19	81	0,49
20-24	818	4,98
25-29	2.108	12,83
30-34	5.718	34,81
35-39	5.609	34,15
>=40	1.691	10,29
Ez da jaso	305	1,86
Guztira	16.427	

2. irudia. Jaiotzen ehunekoa (%), amaren adinaren arabera.



EGINDAKO JARDUERA ANALITIKOAK

TESTATUTAKO JAIOPERRIAK

2018an bizirik jaiotako 16.333 haurtxoen laginak aztertu dira. Haietatik 16.323 EAEko zentroetan zein etxeetan jaiotako dira, eta 10 beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian. Jaioperri horien jatorria honako hau da, programako oinarritzko eremuen arabera:

7. taula. EAEn testatutako jaioperriak.

Oinarritzko eremua	Kopurua
Araba	2.410
Bizkaia I (Basurto)	3.729
Bizkaia II (Gurutzeta)	4.382
Gipuzkoa	5.812
Guztira	16.333

ZEHAZTAPEN ANALITIKOAK

213.441 zehaztapen analitiko egin dira laborategian, EAEn aurkitutako kasuen detekzioari eta jarraipenari dagozkienak (8. taula), eta 96.190 zehaztapen analitiko, 5.597 Nafarroari dagozkionak eta 4.022 Kantabriari.

8. taula. EAEn egindako zehaztapen analitikoaren banaketa, hipotiroidismoa, hiperfenilalaninemia, fibrosi kistikoa, MCADD, ZFG, LCHAD, GA_1, MSUD, homozistinuria eta azidemia isobalerikoa detektatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Zehaztapena	Kopurua
Fenilalanina paperean	16.336
Fibrosi kistikoaren test genetikoak (FKren mutazioak)	135
Tripsinogeno immunoerreaktiboa	16.333
Tripsinogenoa 21 egunera (TIR 2)	12
Tiroxina paperean	16.607
Tirotropina paperean	16.977
Hemoglobinen aldaerak	16.345
C5 Isobaleril karnitina	16.335
Metionina	16.342
3-hidroxi palmitoil karnitina	16.334
C5DC Glutaril karnitina	16.336
Hemoglobinak 5 hilabeterekin	4
Leuzina	16.337
C8, C10, C16	16.336 x3=49.008
GUZTIRA	213.441

METODOAK

Jarrian zehaztaperen analitikoak egiteko eta horien balio diskriminatzaileak ateratzeko erabilitako metodoak laburbiltzen dira.

	<u>Erabilitako metodoa</u>	<u>Eten-puntua</u>
Fenilalanina	Tandem erako masa-espektrometria	151.5 µmol/L
Tirosina	Tandem erako masa-espektrometria	178.6 µmol/L
TSH	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	10 µU/mL
Tiroxina (T4) guztira	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	6 g/dL baino gutxiago edo 20 g/dL baino gehiago
C8,C10,C16,C5,C5DC, Met, Leu, C16-OH	Tandem erako masa-espektrometria	0.5, 0.5, 8.0, 0.79, 0.37, 42, 263, 0.07 µmol/L, hurrenez hurren
Tripsinogenoa (TIR) FK mutazioen azterketa	Fluoreszentzia denbora atzeratuan Kit Elucigene; 50 mutazio	65 ng/ml
Zelula faltziformeen gaixotasuna (ZFG)	Kromatografia likidoa	

BESTE LAGIN BAT ESKATZEA

Beste lagin bat eskatzeko atalean bereizketa hau egiten da:

Retesting indizea

Edozein arrazoiengatik, inpregnazio txarragatik salbu, berriz eskatutako lagin kopurua zein den adierazten du.

Hiperfenilalaninemia

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	1	-	-	1	2	
< 2.500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	1	0	0	1	2	0,01

Sortzetiko hipotiroidismoa (TSH)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	6	8	8	8	30	
< 2.500 g	4	-	2	1	7	
GUZTIR A	10	8	10	9	37	0,23

Sortzetiko hipotiroidismoa (T4 guztira)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	4	2	6	11	23	
< 2.500 g	-	1	-	2	3	
Ez da jaso						
GUZTIR A	4	3	6	13	26	0,16

Kate ertaineko AcilCoA deshidrogenasaren urritasuna (MCADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	-	1	
< 2.500 g	-	-	1	-	1	
Ez da jaso	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	0	2	0	2	0,01

Homozistinuria

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	0	1	
< 2.500 g	-	-	-	0	0	
Ez da jaso	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	0	1	0	1	0,01

Azidemia isobalerikoa

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	-	1	
< 2.500 g	-	-	1	-	1	
Ez da jaso	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	0	2	0	2	0,01

1. motako azidemia glutarikoa (GA-I)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	-	2	2	
< 2.500 g	-	-	1	-	1	
GUZTIR A	0	0	1	2	3	0,01

Astigar-jarabearen usaineko gernu-gaixotasuna

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	-	1	
< 2.500 g	-	-	-	-	-	
Ez da jaso	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	0	0	1	0	1	0,01

Kate luzeko Azil Co A deshidrogenasaren eskasia (LCHADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	-	1	1	
< 2.500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	0	0	0	1	1	0,01

Fibrosi Kistikoa TIR 2 (TIR>100 ng/ml) eta test genetikoa = 0

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	3	4	3	10	
< 2.500 g	1	-	1	-	2	
Ez da jaso	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	1	3	5	3	12	0,07

Inpregnazio txarra

Inpregnazio txarratik baztertutako lagin kopurua % 0,11ekoa izan da guztira; gora egin du 2017ko kopuruarekin alderatuta (% 0,08).

Oinarrizko eremua	Pisua	Pisua	Kopurua	%
	≥ 2.500 g	< 2.500 g		
Araba	2	-	2	0,08
Basurtu	-	-	0	
Gurutzeta	2	-	2	0,05
Gipuzkoa	13	1	14	0,24
GUZTIRA	17	1	18	0,11

DETEKTATUTAKO KASUAK

9. taulan ageri da detektatutako kasuen zerrenda, oinarrizko eremuaren arabera, behin betiko hasierako diagnostikoa kontuan hartuta.

9. taula. EAEn detektatutako gaixotasun endokrino-metabolikoen kopurua.

Gaixotasuna	Araba	Basurtu	Gurutzeta	Gipuzkoa	Kopurua guztira
Sortzetiko hipotiroidismo primario iraunkorra	1	1	2	2	6
Hipotiroidismo primario iragankorra	-	-	-	-	-
Hipertirotropinemia iragankorra	9	7	8	7	31
Hipotiroidinemia goiztiarra	-	2	3	4	9
Hipotiroidinemia iragankorra >1.500 g-ko	3	2	5	8	18
Hipertiroxinemia iragankorra	3	1	1	4	9
Hiperfenilalaninemia iraunkorra	1	-	-	1	2
Hiperfenilalaninemia iraunkor onbera	-	-	-	-	-
Hiperfenilalaninemia iragankorra	-	-	-	-	-
MCADD	-	-	-	1	1
Azidemia Glutarikoa	-	-	-	-	-
Fibrosi kistikoaren eramailea	2	-	2	4	8
Fibrosi kistiko klasikoa	-	2	2	1	5
Fibrosi kistiko negatiboa TIR >65 eta test genetikoa=0	24	28	29	41	122
Zelula faltziformeen gaixotasuna (FS, FSC, FC)	1	1	5	-	7
ZFGaren eramailea (fenotipoa FAS, FAC)	27	24	27	48	126
Homozistinuriaren berrespena	-	-	-	-	-
GUZTIRA	71	68	84	121	344

Fibrosi kistikoa

Testatuta	16.333
TIR >65 ng/ml 48 h	135 (% 0,82)
Bi mutazio	5
Mutazio bat	8
Zero mutazio	122
TIR 2 (21 egun)	12 (% 0.07)
Izerdiaren testa	14 (% 0.09)

Detektatutako mutazioak

delF508	8
R117H	1
D1152H	2
N1303K	2
G85E	1
G542X	3
Guztira	17

ERANTZUN-DENBORAK BAHEKETAN

Hurrengo taulan programaren erantzun-denborak bizi-egunetan daude jasota, screeningeko etapa bakoitza kontuan hartuta; hau da, lagina hartzea, laborategian jasotzea eta emaitzak igortzea.

10. taula. Erantzun-denborak bizi-egunetan, oinarrizko eremuaren arabera, mediana eta tarte-eskala gisa adierazita.

OINARRIZK O EREMUA	Lagina hartzea	Sarrera laborategia	LEHEN EMAITZAK				
			TIR (ng/mL)	TSH (μ U/mL)	T4 (μ g/dl)	PHE, C8, C10, C16, MET, LEU, C16-OH, C5, C5DC (μ mol/L)	FN
BIZKAIA I (Basurtu)	2 (2 -- 8)	4 (2 -- 11)	5 (3 -- 13)	5 (3 -- 13)	5 (3 -- 14)	5 (3 -- 13)	5 (3 -- 13)
BIZKAIA I (Klinika)	2 (1 -- 12)	5 (3 -- 13)	7 (4 -- 17)	7 (4 -- 17)	7 (4 -- 17)	7 (4 -- 17)	7 (4 -- 17)
BIZKAIA I Etxean	3 (3 -- 4)	5 (4 -- 5)	7 (6 -- 8)	7 (6 -- 8)	7 (6 -- 8)	7 (6 -- 8)	7 (6--8)
BIZKAIA I Atzerrian	44 (44 -- 44)	47 (47 -- 47)	48 (48 -- 48)	48 (48 -- 48)	48 (48 -- 48)	48 (48 -- 48)	48 (48 -- 48)
BIZKAIA II (Gurutzea)	2 (2 -- 12)	4 (3 -- 15)	5 (4 -- 16)	5 (4 -- 16)	5 (4 -- 16)	5 (4 -- 16)	5 (4 -- 16)
BIZKAIA II Etxean	2 (2 -- 5)	4 (3 -- 7)	5 (4 -- 9)	5 (4 -- 9)	6 (4 -- 9)	5 (4 -- 9)	5 (4 -- 9)
BIZKAIA II Beste	6 (2 -- 13)	7 (3 -- 14)	9 (5 -- 15)	9 (5 -- 15)	8 (5 -- 15)	8 (5 -- 15)	9 (5 -- 15)
BIZKAIA II Atzerrian	56 (56 -- 56)	61 (61 -- 61)	62 (62 -- 62)	62 (62 -- 62)	63 (62 -- 63)	62 (62 -- 62)	63 (62 -- 63)
GIPUZKOA (ospitale)	2 (-2 -- 14)	4 (3 -- 15)	6 (4 -- 16)	6 (4 -- 16)	6 (4 -- 16)	6 (4 -- 16)	6 (4 -- 16)
GIPUZKOA (Klinika)	2 (1 -- 4)	5 (3 -- 9)	6 (4 -- 12)	6 (4 -- 13)	6 (4 -- 13)	6 (4 -- 12)	6 (4 -- 12)
GIPUZKOA Etxean	5 (2 -- 12)	7 (3 -- 13)	8 (4 -- 14)	8 (4 -- 14)	8 (4 -- 14)	8 (4 -- 14)	8 (4 -- 14)
GIPUZKOA Beste	12 (12 -- 12)	14 (14 -- 14)	15 (15 -- 15)	15 (15 -- 15)	15 (15 -- 15)	15 (15 -- 15)	15 (15 -- 15)
ARABA (ospitale)	2 (1 -- 7)	3 (3 -- 10)	5 (4 -- 13)	5 (4 -- 13)	5 (4 -- 13)	5 (4 -- 14)	5 (4 -- 13)
ARABA Etxean	3 (3 -- 7)	6 (5 -- 8)	7 (6 -- 12)	7 (6 -- 12)	7 (6 -- 12)	7 (6 -- 12)	7 (6 -- 12)

Baieztapena

11. taulan, kasua detektatu eta berretsi diren uneak eta bizi-egunak lotzen dira, jatorrizko oinarrizko eremuaren arabera.

11. taula. Oinarrizko eremuetan detektatutako kasuen erantzun-denborak, bizi-egunetan.

			1. emaitza	Baieztapena
Sortzetiko hipotiroidismo primario iraunkorra	2	Gurutzeta	6	8
			4	6
	2	Gipuzkoa	9	11
			7	9
1	Araba	7	9	
1	Basurtu	7	9	
Hiperfenilalaninemia iraunkorra	1	Araba	4	7
	1	Gipuzkoa	4	6
MCADD	1	Gipuzkoa	4	6
Fibrosi kistiko klasikoa	2	Gurutzeta	7	14
			6	18
	2	Basurtu	4	9
			6	6
1	Gipuzkoa	5	8	
Zelula falziformeen gaixotasuna	1	Araba	5	-
	1	Basurtu	4	-
	5	Gurutzeta		-
				-
				-
				-
		5	-	
		6	-	

EAEko jaioberrien entzumen-baheketa. 2018. urtea.

Hautzaroko entzumen-galera osasun-arazo garrantzitsu bat da, hizkuntzaren garapena eta ikasketa baldintzatzen baititu, eta, beraz, kaltetutako haurren garapen emozionalean eta sozialean eragiten du. Jaioberrien eta edoskitzaileen entzumen-galeraren prebalentzia bizirik jaiotako 1.000tik 1,5 eta 6,0 kasutan jotzen da (OMEren datuak, entzumen-galeraren mailaren arabera).

Euskadin, haurren gorrieriaren detekzio goiztiarraren programa 2003an hasi zen, eta amatasun-eremua duten zentroetan (publikoetan zein pribatuetan) mailaka ezarri zen. Baheketa-proba gisa, otoemisia akustikoak ezarri ziren, eta hainbat fasetan egin ziren, positibo faltsuak saihesteko. 2012. urtean, programa berriz diseinatu zen, eta otoemisia akustiko ebokatuarekin egindako baheketa entzumen potentzial ebokatu automatizatuekin ordezkatu zen; azken hori nazioartean *gold* estandartzat hartuta dago, jaioberriaren entzumen-bide osoa miatzeko aukera ematen baitu.

Entzumen-baheketako programaren barruan baheketako I. fasea sartzen da. Fase hori amatasun-eremua duten zentro publiko eta pribatu guztietan egiten da. Baheketaren I. fasea gainditzen ez duten jaioberriak II. fasera bidaltzen dira, diagnostiko eta jarraipenerako, entzumen-galerako kasuen erreferentzia-zentroetara, Osakidetza lau Unibertsitate Ospitaletako ORL-zerbitzuetara.

I. faseko emaitzak

Euskadiko jaioberrien entzumen-baheketaren programak estaldura handia izan du I. fasean (% 99,97); ikusi 12. taula. Datu hori 2017. urtekoaren oso antzekoa da (% 99,85).

Halaber, fase honetan % 0,80 hipoakusia kasu atzeman dira, alde batekoa edo bi aldeetako; 2017an % 91 atzeman ziren.

12. taula. I. faseko emaitzak (baheketa). 2018. urtea

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2018	EAE 2017
Programaren estaldura (%)	99,92	100,00	99,98	99,97	99,97	99,85
Entzumen-proba normalak	2.395	3.720	4.332	5.751	16.198	17.194
Entzumen-proba normalak (%)	99,05	99,76	99,15	98,85	99,20	99,63
Alde bateko hipoakusia zuten jaioberriak	15	6	28	38	87	104
Alde bateko hipoakusia zuten jaioberriak (%)	0,62	0,16	0,64	0,65	0,53	0,60
Bi aldeetako hipoakusia zuten jaioberriak	8	3	9	23	43	54
Bi aldeetako hipoakusia zuten jaioberriak (%)	0,33	0,08	0,21	0,40	0,26	0,31
Emaitza anormala zuten jaioberriak, I. fasea (%)	0,95	0,24	0,85	1,05	0,80	0,91

II. faseko emaitzak (diagnostikoa).

Diagnostikoko II. faseak, 2018an, % 96,15eko estaldura izan du; hala, bada, 2017ko datua hobetu egin da. Fase hau 3 kasutan ezin izan zen aurrera eraman Osakidetzako ospitaleetan, kasua beste autonomia-erkidego batera ikertzerara bidali zelako edo heriotza gertatu zelako. Azkenik, alde bateko edo bi aldeetako 32 hipoakusia kasu atzeman ziren: miaketa egin zitzaizen 1.000 jaioberritik 1,96ri (ikus 13. taula). Datu horiek 2017koaren antzekoak dira (37 kasu, eta mila jaioberritik 2,1).

13. taula. II. faseko emaitzak (diagnostikoa). 2018. urtea.

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2018	EAE 2017
II. fasean aztertutako kasuen kopurua	22	9	37	57	125	149
EAEn egin ez diren II. faseak*	1	0	0	2	3	7
Baheketaren estaldura (%)	95,65	100,00	100,00	93,44	96,15	94,30
Entzumen-proba normalak	14	5	24	50	93	112
Entzumen-proba normalak (%)	63,64	55,56	64,86	87,72	74,40	75,17
Alde bateko hipoakusia kasuen kopurua	5	2	8	7	22	19
Bi aldeetako hipoakusia kasuen kopurua	3	2	5	0	10	18
II. fasea - Hipoakusia kasuak mila jaioberri bakoitzeko	3,31	1,07	2,97	1,20	1,96	2,1

* Lekualdaketa, heriotza...